

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak eta "la Caixa" Fundazioak gizarte, hezkuntza eta kultura arloetako lankidetzaz berritu dute

Uxue Barkos Lehendakariak eta Jaime Giró zuzendari nagusiak sinatu duten akordioaren arabera, Fundazioak 14 milioi euro inbertituko ditu aurten Foru Komunitatean

Ostirala, 2018.eko ekainak 15

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek eta "la Caixa" Banku Fundazioko zuzendari nagusi Jaime Girók akordioa sinatu dute gaur goizean Iruñean, bi erakundeek gizarte-ekintza, hezkuntza, zientzia eta kultura arloetan mantentzen duten lankidetzaz zehazteko. "la Caixa"-k 14 milioi euro zuzenduko dizkio 2018an lankidetzaz honi.



Barkos Lehendakaria eta Giró zuzendari nagusia elkarri agurtzen, lankidetzaz hitzarmena sinatu ondoren.

Hauxek dira hitzarmenean jasotako oinarrizko helburuetako batzuk: haur behartsuenen bizi-baldintzak hobetzea, adinekoen zahartze aktiboa sustatzea, beharrez dauden kolektiboak laneratzea erraztea eta gaixotasun aurreratuak dituzten pazienteen arreta integrala zaintzea, baita desgaitasuna edo bazterketa-arriskua duten pertsonen ongizatean laguntzea.

Jarduera-ildo horiez gain, akordioak zenbait ekintza ere aurreikusi ditu hezkuntza, kultura, ikerketa eta ezagutzaren esparruetan, "la Caixa" Banku Fundazioaren 2016-2019ko Plan Estrategikoaren arabera.

Uxue Barkos Nafarroako Lehendakariak oso balorazio positiboa egin du gizarte ekintzaren babesaz eta Nafarroako gizarte inbertsioa indartzen lagunduko duten lankidetzaz-ildoaren ezarpenaz. "Bi erakundeek arteko lankidetzaz-esparru desberdinen bitartez, gure komunitateko kolektiborik kaltetu eta zigortuenetako batzuen bizi-baldintzak hobetzeko proiektuen garapena errazten dugu", ziurtatu du Barkosek.

Bestetik, "la Caixa" Banku Fundazioko zuzendari nagusi Jaime Girók adierazi duenez, "gaur Nafarroarekin dugun konpromisoa indartu dugu berriz ere. Gure helburua, Nafarroako Gobernuaren ondoan, komunitate honetako gero eta pertsona gehiagorengana iristea da egunegun. Gizarte, kultura eta hezkuntza arloetako programetara zuzendutako inbertsioa areagotu dugu, behar gehien dutenei aukera gehiago

eskaintzeko asmoz”.

Gizarte proiektu nagusiak

Hauek dira jasotako lehentasunezko proiektuetako batzuk, gizartea eraldatzeko ekintzari arreta berezia ematen diotenak:

- **Incorpora programa**, enplegua aurkitzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen, desgaitasunen bat duten pertsonen, iraupen luzeko langabeen, baztertzeko arriskuan dauden gazteen, genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeen, etorkinen eta giltzaperatu ohien kontratazioa. 2017. urtean zehar 487 lanpostu bideratu ziren Nafarroan lurraldeko 197 enpresen laguntzari esker. Guztira, 7 gizarte-erakunde arduratzen dira Incorpora komunitatean garatzeaz.

- **Gaixotasun aurreratuak dituzten pertsonen arreta integraleko programaren** helburua beren bizitzaren amaieran dauden pertsonen eta haien senideen arretaren kalitatea hobetzea da. Nafarroan diziplina anitzeko arreta-talde bat du programa honek eta 485 paziente eta 727 seniderengana heldu da 2017. urtean.

- **Adinekoen programaren** eginkizuna da talde horren gizarte-partaidetza sustatzea, haren esperientziaren balioa nabarmentzea eta gure gizartean protagonista aktibo gisa jartzea. Adinekoek teknologia berriko, kultura eta gizarte arloko proiektuetan prestakuntza aukera dute, itundutako 8 adinekoen zentzoren bidez. 2017. urtean 139 jarduera egin ziren Nafarroan, eta 2.687 adinekok parte hartu zuten.

- **Gizarte Etxebizitzako programek** errentako etxebizitzak eskaintzen dituzte, merkatu prezioak baino merkeago, eta etxebizitza bat lortzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat dira. Nafarroan, "la Caixa" Taldeak 559 gizarte etxebizitza ditu guztira.

- Askatasuna kendu dieten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea, **Reincorpora programaren** bidez, gizarte-ekimeneko proiektuetarako laguntzak, boluntarioak eta herritarren bizikidetzak sustatzea dira "la Caixa" Gizarte Ekintzaren beste helburu nabarmen batzuk, eta horiei ekingo die komunitatean.

- Bestalde, "la Caixa" finantza-sareak gizarte, ingurumen, kultura eta hezkuntza arloetako proiektu eta jardueren garapena bultzatzen du **ingurune hurbileko proiektuetarako laguntza ekonomiko**en bitartez. 2017. urtean, 499 jarduera garatu ahal izan ziren bulego-sareari esker, 1,6 milioi eurotik gorako guztizko inbertsioarekin.

la 82.000 bisitari Nafarroako erakusketetan

Kultura zabaltzeari dagokionez, "la Caixa" pertsonen hazkuntza sustatzen du, ezagutzaren bidez, Nafarroan egiten dituen erakusketen bidez. 2017. urtean hiru erakusketa programatu zituen: "Salgado. Arte en la calle" eta "Inventos para el desarrollo" Iruñean, eta "Hablemos de drogas" Tuteran.

2018an, Adinekoen programari atxikita, CIVICANen jarri dute ikusgai "Envejecer en África, América Latina y Asia" izenburuko erakusketa ibiltaria, "la Caixa" Gizarte Ekintzak eta Nafarroako Kutxa Fundazioak Espainiako HelpAge Internationalen lankidetzaz bultzaturikoa. Erakusketak 1.350 bisitari erakarri ditu, banakakoak zein 8 ikastetxetatik eta 14 gizarte-erakundetatik antolatutako hezkuntza-bisitaldiak barne hartuta. Udazkenean, komunitatean beste bi erakusketa antolatzeko asmoa dago.

Erakundeak 90eko hamarkadan ekin zion Nafarroan erakusketan antolatzeari. Lehenengo erakusketa 1991n Iruñean antolatutako Zientziaren Karpa izan zen.

Gainera, Gizarte Ekintzak humanitateetara, arte eszenikoetara eta musikara hurbiltzeko aukera eskaintzen die Nafarroako herritarrei kontzertuen eta eskola-antzerkiko emanaldien bitartez (3.034 partaide).



Ekitaldian parte hartu duten bi erakundeen ordezkariak. Ikus argazki-oina informazioaren bukaeran.

Horrez gain, eduCaixa programa garatzen jarraituko da, "la Caixa" Gizarte Ekintzaren hezkuntza-
eskaintza guztia barne hartzen duena. 2017. urtean Nafarroako 194 eskolek eta 55.792 ikaslek proiektu
honen baliabide eta jardueretan parte hartu zuten.

"La Caixa" Gizarte Ekintzaren beraren jardueraz gain, erakundeak gizarte, kultura, zientzia eta
ingurumen arloetako hainbat ekintza ere egiten ditu Caja Navarra Fundazioarekin batera, 2018rako
sinatutako Baterako Gizarte Ekintzaren 7 milioi euroko akordioari esker, 2017ko 6,5 milioiko akordioaren
aldean. Horien artean bertako gizarte-erakundeekin egindako gizarte-proiektuak nabarmendu daitezke,
hala nola bi fundazioen ildo estrategikoei dagozkienak (laneratzea, adinekoak...) eta bikaintasuna ikertzen
eta kulturari laguntzeko proiektuak.

ARGAZKI-OINA: ezkerretik eskuinera, Izaskun Azkona, "la Caixa" Gizarte Ekintzaren Nafarroako
Lurralde Ekintzaren kudeatzailea; Rafael Chueca, "la Caixa" Fundazioaren Lurralde eta Zentroen Arloko
zuzendari korporatiboa; Uxue Barkos, Nafarroako Lehendakaria; Jaime Giró, "la Caixa" Fundazioko
zuzendari nagusia; Ana Díez Fontana, Caixa Banken Nafarroako lurralde zuzendaria, eta Miguel Laparra,
Eskubide Sozialetako lehendakariordea.